

BEZERO KANALAK

Animalien Erresuman, gure bezeroekin komunikazio argia eta erraza izatea da lehentasuna. Horretarako, hainbat kanal erabiliko ditugu, maskoten jabeek gure zerbitzuak erraz ezagutu eta erabili ahal izateko.

DENDA FISIKOA

Animalien Erresuman komunikazio-kanal erraza eta hurbila diseinatu dugu, bezeroek gu ezagutzeko eta erraz kontaktatzeko aukera izan dezaten. Eibarren gure denda fisiko bakarra edukiko dugu; bertan bezeroek guregana jo dezakete gure zerbitzu guztiak zuzenean ezagutu eta galdetu ahal izateko.

Hemen azalduko diegu gure maskota-hotelaren funtzionamendua eta eskaintzen ditugun beste zerbitzuak, hala nola albaitaritza, ile-apainketa, entrenamendua eta pertsonalizatutako lepokoak. Guretzat garrantzitsua da hurbiletik ikustea nola zaintzen ditugun euren maskotak, guregan konfiantza senti dezaten.



Bezeroek gurekin erraz kontaktatu ahal izateko, gure sare sozialetako eta kontaktu-datuekin txartelak prestatu ditugu. Txartel hauek Eibarreko etxebizitzetako postontzietan jarriko ditugu, gure informazioa eskura izan dezaten. Halaber, nahi dutenek dendan bertan txartela har dezakete.

Sare sozialak eta kontaktatzeko bideak

- **WhatsApp:**
 - Komunikazio azkarra izateko, hitzorduak koordinatzeko, zalantzak argitzeko eta bezeroen galderak berehala erantzuteko aukera ematen du.
- **Instagram/Facebook:**
 - Gure instalazioen argazkiak eta bideoak ikusi ahal izango dituzte, zaintzen ditugun maskoten irudiak, eta gure zerbitzuei buruzko azken berriak ezagutzeko.



Txartel hauez gain, Eibarreko kaleetan poster batzuk jarriko ditugu, jende gehiagok gure enpresa ezagutu dezan eta jakin dezan hemen gaudela, bere maskoten ongizateaz arduratzeko.

Estrategia honekin, bezeroek gu ezagutzea eta guregan konfiantza izatea nahi dugu, maskotak zaintzeko denda fisikotik zein gure sare sozialetatik eta kontaktu-kanaletatik.